

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

#### Zk-1431

48/2000 DEKRETUA, martxoaren 14koa, doako laguntza juridikorako eskubidearen aurkako prozeduratan ordezkari eta defentsari izateko gaikuntzari buruzkoa.

Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak eskubidea lortzeko ordura arte indarrean zegoen prozedura aldatu zuen eta, horren ordez, beste bat ezarri du, ahozkotasan eta arartegabetasun printzipioetan oinarritua.

Lege-aldaketa horren ondorioz, besteak beste, Zerbitzu Juridiko Nagusiko abokatuak sarriago agertu behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko auzitegiatan, horien presentzia eskatzen duten auziak nabarmen ugartu baitira. Bestalde, administrazioarekiko auziak ere areagotu egin dira. Ondorioz, arazo larriak sortu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatzeko eta defendatzeko orduan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Epaietarako Ordezkozta eta Aldezenari buruzko ekainaren 26ko 7/1986 Legeak bide ematen du zeregin horiek, Zerbitzu Juridiko Nagusiko abokatuak ezezik, beste abokatu batzuek ere egin ahal izateko, beti ere, horretarako berariaz gaituta baldin badaude.

Beraz, arrazoi horiek aintzat, eta behar besteko gaikuntza duten abokatuak badaudela kontuan, komenigarri irizten zaio legeak gaikuntzarako irekitako bide-tik jotzeari.

Gaikuntza horretaz baliatuz, bakar-bakarrik ordezkatu eta defendatu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra doako justiziarako eskabideei erantzunez Doako Laguntza Juridikoko Batzordeek emandako baietza edo ezetzaren aurka jotzeko prozedura judizialean. Bestalde, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak lurralde historiko bakoitzean dituen antolaketa-unitateetako abokatuak hartuko ditu gaikuntzak; izan ere, Sail horren egitura erregulatzeko arauen arabera, berari atxikita daude Doako Laguntza Juridikoko Batzordeak eta berari dagokio, halaber, babes judizial eraginkorrerako eskubidea bermatzea, doako laguntza juridikorako eskubidea horretarako tresna delarik.

Gaikuntzak hartzen dituen zereginak Araubide Juridikoaren Idazkaritza Nagusiaren zuzendaritzapean burutuko dira. Hortaz, bermatu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatzeko eta defendatzeko zereginetan irizpide eta jardueraren bateratuak erabiliko direla.

## Disposiciones Generales

### VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

#### Nº-1431

DECRETO 48/2000, de 14 de marzo, sobre habilitación para la representación y defensa en procedimientos impugnatorios del derecho de asistencia jurídica gratuita.

La Ley 1/1996, de 10 de enero, de asistencia jurídica gratuita ha modificado el procedimiento hasta entonces vigente para obtener el derecho y ha instaurado otro basado en los principios de oralidad e inmediatez.

Este cambio legislativo ha supuesto, entre cosas, un aumento de los asuntos en que deviene obligatoria la presencia física de los letrados del Servicio Jurídico Central ante los distintos órganos jurisdiccionales de la Comunidad Autónoma, lo que, añadido al importante aumento de los asuntos contenciosos, ha provocado serios problemas en el desarrollo de la función de representación y defensa de la Administración General del País Vasco.

La Ley 7/1986, de 26 de junio, cuyo objeto es la regulación de las citadas funciones de representación y defensa en juicio de la Administración General del País Vasco permite que puedan ser ejercidas, además de por los letrados de los Servicios Jurídicos Centrales, por otros letrados siempre que estén habilitados expresamente para ello.

Por ello, atendidas las circunstancias expuestas así como la existencia de letrados suficientemente capacitados, se considera conveniente utilizar la posibilidad legal de la habilitación.

El ámbito objetivo de dicha habilitación es la representación y defensa de la Administración General del País Vasco sólo en los procedimientos judiciales donde se impugne el reconocimiento o denegación del beneficio de justicia gratuita acordado por las Comisiones de Asistencia Jurídica Gratuita. Su ámbito subjetivo son los letrados adscritos a las unidades organizativas que en cada Territorio Histórico tiene el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, órgano que, de acuerdo con las normas que regulan su estructura, tiene adscritas las Comisiones de Asistencia jurídica gratuita y atribuida la función de propiciar el ejercicio del derecho a la tutela judicial efectiva del que es instrumental el de la asistencia jurídica gratuita.

El desarrollo de las funciones a que se contrae la habilitación se producirá bajo la dirección y coordinación de la Secretaría General de Régimen Jurídico, quedando así garantizada la unidad de criterio y actuación de las funciones de representación y defensa en juicio de la Administración General del País Vasco.

Ondorioz, Jaurlaritzaren lehendakariordearen proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko martxoaren 14an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

## XEDATU DUT:

**1. artikulua.**

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko lurralde ordezkarietako letradu lanpostuetara atxikitako funtzionarioak gaitu egiten dira doako laguntza juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 20. artikuluan aipatzen diren prozeduretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatzeko eta defendatzeko. Prozedura horiek Doako Laguntza Juridikoko Batzordeen erabakien aurka egiteko dira.

**2. artikulua.**

1.– Letraduek lanpostua duten lurralde historikoko organo judizialetan beteko dituzte aurreko artikuluan aipatzen diren zereginak.

2.– Auzibide Zuzendaritzak behar diren aginduak edo instrukzioak emango ditu letraduek auzitegi desberdinetan jardun ahal izan dezaten.

**3. artikulua.**

Gaikuntzak hartzen dituen zereginak betetzeko egin beharreko joan-etorriek sortutako gastuak kalteordainei buruz indarrean dagoen araubidearen arabera ordainduko dira.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

**Bakarra.**– Gaikuntzaren ondorioz, esleitutako funtzioak aldatu egin direnez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eskatuta, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak lanpostuen zerrenda aldatzeko proposatuko dio Jaurlaritzaren Kontseiluari.

## AZKEN XEDAPENA

**Lehenengoa.**– Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari baimena ematen zaio Dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamendu mailako arauak emateko.

**Bigarrena.**– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko martxoaren 14an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

En su virtud, a propuesta de la Vicepresidenta del Gobierno y, previa deliberación del Consejo de Gobierno, en su sesión del día 14 de marzo de 2000

## DISPONGO

**Artículo 1.**

Se habilita a los/as funcionarios/as adscritos/as a los puestos de letrados/as de las Delegaciones Territoriales del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, para representar y defender a la Administración General del País Vasco en los procedimientos a que se refiere el art. 20 de la Ley 1/1996, de 10 de enero de asistencia jurídica gratuita, sobre impugnación de las resoluciones de las Comisiones de Asistencia Jurídica Gratuita.

**Artículo 2.**

1.– Los/as letrados/as desarrollarán las funciones a que se refiere el artículo anterior ante los órganos judiciales del Territorio Histórico donde se localice su puesto de trabajo.

2.– La Dirección de lo Contencioso podrá dictar órdenes e instrucciones para que los/las letrados/as puedan ejercer sus funciones ante los distintos órganos jurisdiccionales.

**Artículo 3.**

Los gastos ocasionados con motivo de los desplazamientos que deban efectuar por razón de las funciones a que se contrae la habilitación les serán resarcidos conforme al régimen de indemnizaciones en vigor.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL

**Única.**– El Departamento de Hacienda y Administración Pública, a propuesta del de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, propondrá al Consejo de Gobierno la correspondiente modificación de la relación de puestos de trabajo, como consecuencia de la nueva asignación de funciones que se deriva de la habilitación.

## DISPOSICIÓN FINAL

**Primera.**– Se autoriza a la Consejera de Hacienda y Administración Pública para dictar las normas reglamentarias que sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

**Segunda.**– Este Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 2000.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Vicepresidenta del Gobierno,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.